

IKASGELAZ KANPOKO EKINTZETAN (IKE) EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO 2016 URTERAKO LAGUNTZA-DEIALDIA: OINARRI-ARAUAK.

1.- Ikasgelaz kanpoko ekintzetan (IKE) euskararen erabilera sustatzeko laguntza-deia egiten da. Horretarako Altsasuko Udaleko 2016ko aurrekontuetatik 2.700,00 euroko diru-partida erabiliko da.

2.- Deialdi honek 2016. urtean zehar burutu diren ekintzak hartuko ditu kontuan.

3.- Sakanako Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei zuzenduak dira laguntza hauek; A, B eta D ereduko ikasleei bideratutako ekintzetarako, hain zuzen ere.

4.- Ikasgelaz kanpoko esparru hauetakoren batean bereziki euskararen erabilera sustatzeko burutzen diren ekintzak hartuko ditu kontuan deialdi honek:

- Etxetik eskolarako autobus-ibiliak.
- Eskolako atari ingurua, sarrera-irteera orduetan.
- Jolastokiak (jolas-orduetan).
- Ikastetxeko pasabide eta eskailerak, sarrera-irteera zein klase-aldaketa orduetan.
- Jantokia (otorduetan eta libre atsedendian).

5.- Ez dute diru-laguntzarik jasoko euskararen erabilera sustatzeko eremu zehatzean interesa ez duten jarduerak, ez eta Altsasuko Udaleko beste edozein organori dagokion beste araudiren baten esparruan diru-laguntza jaso ahal duten horiek (baldin eta organo horrek berariazko eskumenak baditu eskaeraren xede den gaien), ez eta, oro har, Altsasuko Udalaren jarduketa esparruaren barruan ez daudenek ere.

ESKABIDEAK

6.- Deialdi honetako laguntza eskuratzeko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da eskabidearekin batera:

- a) IFKaren fotokopia.
- b) Egin nahi den jardueraren gaineko plangintza xehatua.
- c) Jarduerari lotutako diru-sarreraren eta gastuen gaineko aurrekontua.
- d) Aitorpena, objektu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako diru-laguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebatzteke edo ebatzita dauden; azkenengo kasu horretan, erantsiko da kontzesioari buruzko ebatzpenaren kopia.

7.- Dokumentazioa Altsasuko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu behar da edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38. artikulua aurreikusitako edozein lekutan. Eskabideak egiteko epea 20 egun naturalekoa izanen da, oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik hasita.

8.- Altsasuko Udalak jasotako eskabidean hutsune edo osatu beharren bat sumatuko balu, horren berri emango zaio eskatzaileari eta 5 eguneko epea emango zaio eskabidea osa dezan. Epe

horretan eskabidea osatzen ez badu, bere eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko da, ebazpena eman ondoren.

BALORATZEKO IRIZPIDEAK

9.- Euskera Batzordeak eskabideak baloratuko ditu, ohiko saioan, eta honako alderdiak izanen ditu kontuan:

- Jarduerak ikastetxeko hizkuntza normalizazioan duen eragina eta efektu biderkatzailea: 45 puntu.
- Jardueraren kalitatea, originaltasuna eta berrikuntza maila: 25 puntu.
- Autofinantzaketa maila: 10 puntu.
- Beste entitate batzuekin elkarlanean jardutea: 20 puntu.

DIRU-LAGUNTZA JASOTZEN AHAL DUTEN GASTUAK

10.- Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira diru-laguntzaren xede den jarduerarekin bat datozenak. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuei dagokienez, emate kostua ez da inoiz merkatuko balioa baino handiagoa izanen.

11.- Deialdi honetan ezarritako justifikazio aldia amaitu baino lehen ordaindutako gastua hartuko da egindako gastutzat. Oinarriok ezartzen duten gauzatze arotik kanpo egiten direnak ez dira diru-laguntzak estal ditzakeen gastu justifikagarritzat hartuko.

12.- Zeharkako zergak ez dira inondik inora diru-laguntza jasotzen ahal duten gastutzat joko, berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak badira. BEZari dagokionez, zehazki, diru-laguntza jasotzen ahal duten gastuak izanen dira kostu erreala izanik onuradunak ordaindu dituen zenbatekoak; hau da, onuradunak ordaindu dituenak eta kengarriak ez direnak. Izan ere, kengarriak izanez gero, onuradunak zerga hori berreskuratzen ahalko luke.

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUEREN FINANTZAKETA

13.- Emandako diru-laguntzen zenbatekoak –ondasun propioetatik eratorritako beste erakunde edo elkarte batzuen (publiko zein pribatu) diru-laguntza edo laguntzekin batera– ezin izanen du inolaz ere garatu beharreko proiektuaren kostu osoa gainditu.

14.- Diru-laguntzaren emate ebazpena aldatzen ahal da deialdi honetako oinarriekin bat, diru-laguntza emateko aintzat hartutako baldintzetan gertatzen ahal den aldaketa ororen ondorioz, eta deialdi honetan onartzen diren kasuetatik kanpo izaten ahal den beste ekarpenen bat lortzearen ondorioz.

15.- Oinarriok arautzen dituzten diru-laguntzak aurrekontu erabilgarriaren arabera izanen dira. Balorazioaren ondorioz, 2016. urterako Altsasuko Udaleko udalbatzak onetsitako aurrekontuen erabilgarritasuna nahikoa ez balitz, banaketa proportzionaleko sistema erabiliko da, indize zuzentzailea aplikatuz.

EBAZPENA

16.- Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua izanen da, Altsasuko Udalak eskumen hori emanda, diru-laguntzen inguruko prozedura bideratzeko organo eskuduna eta bere kabuz beharrezko jotzen duen jarduketa oro egingen du, ebazpen proposamena emateko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko.

17.- Ebazpen proposamena instrukzio organoak emanen du, espedientea kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

18.- Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak dagokion akordioa egin eta jakinaraziko du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58 eta 59. artikuluek agindutakoarekin bat 2016ko ekainaren 30a baino lehen, jasotzaileen zerrenda eta zenbatekoak adieraziz; onartu gabekorik baleude, beraien berri ere bertan emango da, zergatiekin batera.

19.- Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea agortzen eta bere aurka dagozkion errekurtsok aurkeztu ahal izango dira.

ORDAINKETA

20.- Emandako diru kopurua bi zatitan ordainduko da: %50, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten den unean, eskatzaileak horretarako zehazten duen kontu korrante zenbakira eginiko banku-transferentziaren bidez. Gainerako %50, berriz, eginiko jardueren memoria eta kontuak balioetsitakoan. Memoria eta kontuak aurkezteko epea 2016ko azaroaren 30ean bukatuko da.

21.- Onuradunen bati esleitutako laguntzaren zenbatekoa murrizten bada dokumentazio osoa ez aurkezteagatik, ez justifikatzeagatik edo epeak edo deialdiko oinarrietakoren bat ez betetzeagatik, soberakina gainerako onuradunen artean proportzionalki banatzen ahalko da.

22.- Aurkeztutako justifikazio agiria guztiek diru-laguntzaren xede den ekitaldi ekonomikoaren data eraman beharko dute.

23.- Aldez aurretik, Altsasuko Udalak bere kabuz kitatu ahal izanen ditu diru-laguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, diru-laguntza horiek konpentsatuz zor dituzten kopuruekin.

BATERAGARRITASUNA

24.- Ikastetxeak ekimen honetarako beste erakunderen baten diru-laguntza jaso edo jasotzekoa badu, horren azalpen zehatza egin beharko du, edozein modutan ere diru-laguntzen baturak ezingo duelarik gainditu gastuaren % 100a.

DATUEN BABESA

25.- Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan xedatutakoarekin bat, jakitera ematen dizugu ikasgelaz kanpoko ekintzak egitea helburu duten diru-laguntzak emateko jasotako datuak Altsasuko Udala jabe duen fitxategi automatizatu batean bildu ahal izanen direla. Halaber, jakitera ematen dizugu baduzula datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubidea. Halako eskubidea gauzatzeko, Altsasuko Udaleko erregistro orokorrera jo behar duzu (Gartzia Ximenez 36 31800 Altsasu).

DIRU-LAGUNTZAK ERREGULATZEKO ARAUAK

26.- Diru-laguntza deialdi honek men eginen die agiri honetan jasotako oinarriei, bertan aurreikusten den orori eta ondoko legeetan xedatutakoari:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Altsasuko Udaleko diru laguntzak arautzeko ordenantza.

ERREKURTSOAK

27.- Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio ebazpenen aurka, ondoko errekurtsuak aurkezten ahalko dira:

- Berraztertze errekurtsua, administrazio egintzaren egile den organoari zuzendua. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina hilabeteko epean.
- Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.